

XUXEN  **MAC OSX**

XUXEN QuarkXPress MAC OSX

Eskuliburua



Egileak:



ixa.si.ehu.es



ingemantza
ELEKA
linguistikoa

www.eleka.net

1. Eskakizunak

Sistema eragilea

Mac OS X 10.3 bertsiotik aurrerako sistemetan funtzionatzen du.

Zure sistemaren bertsioa jakiteko *Sagarra* -> *Acerca de este Mac* aukeratu:




Beharrezko softwarea

QuarkXpress 6.x bertsioa da.

2. Instalazioa

XUXEN QuarkXPress-en “Xtension” bat bezala eginda dago, eta berez, nahikoa da fitxategia aplikazioaren Xtension karpetara kopiatzea (Adibidez, *Aplicaciones* -> *QuarkXPress 6.1* -> *Xtension* karpetara).



3. Erabilera

Instalatu eta gero, QuarkXPress abiaraztean XUXEN QuarkXPress automatikoki kargatuko da.


QuarkXPress Passport bertsioetan, testua Suedieraz (Sueco) dagoela adierazi behar da, izan ere, euskara ez baitago aukeratzeko hizkuntzen artean. Passport ez diren bertsioetan, hizkuntza bakarra erabili daitekeenez (International English), ez da ezer berezirik egin behar.

Zuzenketa egiteko, *Utilidades-> Verificar Ortografía* aukera erabili.

Leihotxo berri bat aterako da egiaztatutako hitz kopuruarekin, hitz ezberdin kopuruarekin eta horietatik susmagarrien kopuruarekin:



OK zapaldu eta testuko hitz ezezagun susmagarri guztientzako ondoko leihotxo aterako da, hitz horrentzako zuzenketa posiblea(k) proposatuz, baldin eta proposamenen bat badago:



Proposamenen bat badago, nahi dugun proposamena aukeratu eta *Sustituir* sakatuta, testuan aldatuko du. *Saltar* botoiari sakatuz, hitz hori alde batera utzi egiten dugu. *Añadir* botoiarekin berriz, hitz hori hiztegi osagarri gehitzen dugu (Hiztegi osagarri bat lortzeko *Utilidades* -> *Diccionario Auxiliar* erabili behar da) . *Terminado* sakatuta, zuzenketa saioa bukatzen da.